

Udal talde politikoaren iritzia



OLENTZERO TOKIKO MERKATARITZAREN ALDE

Ziur gure Olentzerok eta Mari Domingik lotura estua dutela dendetan, zerbitzuetan, ostalaritzan eta, funtsean, tokiko merkataritzako establezimenduetan egunero gogor lan egiten duten emakume eta gizonekin. Horiek horrela, zailtzarik gabe, abenduaren erdialdean Olentzerok eta Mari Domingik oso argi izaten dute jada gure eskutitzetan zer eskatu diegun.

Ildo beretik, abenduaren lehen Getxoko hiriguneak apaintzen dituzten argi zoragarriak piztu zirenetik, kultur eta aisialdiko egitarau osoaz gozaten ari gara; adin guztiei zuzenduta dago baina arreta berezia jarri da umeengan. Getxoko kaleetan eta plazetan batzea helburu duen egitaraua dugu oraingoan, zeinak ahalbidetuko baitu egi bihurtzea, besteak beste, Getxoko saltokietan erostearen alde norberak egiten



duen apustua nahiz Getxoko askotarik establezimenduetan kalitatezko zerbitzu profesionalak izatea, bai eta Getxoko udalerriko ostalaritzako produktu

bikainez gozatzea ere.

EAJ-PNV taldeak konpromiso argia hartu du Getxoko kaleak plaza komertzial

bihurtu daitezten. Hala jaso genuen gure hauteskunde-programan eta zeharka aplikatzen dugu gure ekintzetan. Izan ere, tokiko merkataritza eta saltokiak oso garrantzitsuak dira esparru guztietan: arreta, zerbitzua, produktua, hurbiltasuna, kalitatea, segurtasuna, adeitasuna, etab. Ildo horretatik, udalak eta Getxoko merkataritza- nahiz enpresa-elkarrekin bultzatutako Gabonetako kanpaina berezia OPARITU GETXO deritzo eta abenduan eta Gabonak iraun bitartean egongo da abian. Horrexegatik, oparitu diezaiozun Getxo elkarri eta gure auzokide nahiz lagunen establezimenduetan utzi ditzagun amaitzen gabiltzan Olenzero eta Mari Domingirentzako eskutitzak. Gainera, oso opari bereziaz gozatu ahalgo dugu Aspertxu elkartearen laguntzari esker (Asperger-en sindromea eta Espekto Autistaren Nahasmendua duten pertsonen elkarrekin).



AURREKONTU-AKORDIOA

Aurrekontu-akordioa egokia da Getxorentzat; izan ere, zergak eta tasak ez igotzeaz gain, zenbait arazotarako konponbideak ekarriko dizkigu. Esate baterako, honako arazo hauek konponduko dira: Areetan aparkalekurik ez egotea (skate pistaren azpian aparkalekua eraikiko da eta Pinuetan dagoena eskuratuko dugu), Algortan aparkalekurik ez egotea (antzokiko aparkalekua zabalduko da eta epaitegien ondoan egongo den beste bat diseinatuko da), herritarren segurtasun-falta areagotzea (hamasei agente gehiago daude) eta Sarrikobasoko eraikinen arazoa. Horrez gain, luzatuko da neguan zein udan hondartzetan txakurrak aske uzteko ordutegia, udal-autobusa jarriko da, metroa lurperatzeko eskatuko dugu, eta udalerriko zenbait elkarrekin espazioa handituko dugu. Info +: www.ppgetxo.net



ehbildu

EAJK ETA PSEK AURREKONTU ATZERAKOIAK ADOSTU DITUZTE PPREKIN

Getxoberriko azken zenbakian lau haizetara zabaldu zen EAJ-PP-PSE hirukoak egin duen akordioa, hurrengo urteko Getxoko Udaleko aurrekontuak onartzeko. EH Bildutik ere akordioaren inguruan dugun irakurketa bidali genuen, baina ez ziguten aukerarik eman publikatzeko. Argi dago Getxoberri EAJ eta PSEren propaganda-erreminta baino ez dela. Orain ere PPrena ere izango da.

Gure ustez, hiru alderdien artean sinatu duten akordioa berri txarra da getxoztarrentzat. Lehenik eta behin, baieztatzen

delako EAJk eta PSEk PP aukeratu dutela legegintzaldi honetarako bazkide eta laguntzaile gisa, horrek dakarrenarekin: Udal atzerakoiagoa eta eskuindarragoa.

Aurrekontu hauek dira horren adibide argia. Atzerakoiak dira, murrizketak dituzte eta ahaztuta utziko dituzte guztiz larrialdi klimatikoak, tokiko ekonomia, etxebizitza sozialak eta ez dituzte getxoztarren beharrezanean aurre egiten.

EH Bildutik prest agertu gara uneoro akordioa lortzeko, proposamenak egi-

nez eta egingarriak diren proiektuak mahai gainean jarri. Birritan bildu gara Udal Gobernuarekin aurrekontuak lantzeko, eta bertan EAJk eta PSEk ez dute inolako proposamenik aurkeztu negoziatzeko. EH Bilduk, oster, 40 baino gehiago aurkeztu zituen, baina Udal Gobernuak ez zituen aztertu ere egin, horretarako konpromisoa hartu zuen arren. "Erantzuna" prentsaurreko formatuan heldu zen, PPekin batera. Errespetu eta zintotasun politiko falta ikaragarria, argi dagoelako EAJ, PP eta PSEren arteko akordioa aldeztu aurretik

hartua zegoela.

Bigarren aldiz akordioa egin dute EAJk, PPK eta PSEk legegintzaldi honetan, ekainean politikari eta aholkularien soldatak adostu ostean. Gero eta argiago geratzen ari da herri-eredu berbera konpartitzen dutela eta Getxoko kasua ez dela kasu isolatu bat, baizik eta EAJ, PP eta PSEren arteko lankidetzaren beste adibide bat baino ez dela: Gipuzkoa, Gasteiz, Durango... eta orain, Getxo.

Info + getxo.ehbildu.eus



GETXO HOBETZEN JARRAITZEKO AURREKONTUAK



GETXORAKO 26 PROPOSAMEN

PSE-EE taldeko kideok nabarmendu nahi dugu udal-gobernua osatzen dugun taldeok (PSE-EE eta EAJ) PPekin lortutako akordioa 2024ko udal-aurrekontuak oneste aldera. Desberdintasun politikoez haratago doa helburu komun bat lortzeko: **Getxoko bizi-kalitatea hobetzea.**

Aurrekontu horren bitartez, aintzatetsiko ditugu herritarrek aurretiazko inkestan aitortutako udalerriko lehentasunak. Interes handiko proiektuak bultzatuko ditugu, hala nola **Mesedeetako kalean aparkaleku publikoa eraikitzea, hiri-autobusa** abian jartzea, eta degradatuta dagoen Sarrikobasoko

gunerako konponbidea topatzea, **etxebizitza-alorra** sustatze aldera. Halaber, **nabarmentzekoa da herritarrei eskainitako guneen sorrera: adinekoen elkarrekin** gizarte-guneak, ludoteka berria Algortan, **Errekaganen haur eta gazteentzako zentroa** sortzeko proiektua diseinatzen hastea, eta langileen errefortzua ematea segurtasun-arloan zein gizarte-zerbitzuetan. Horrez gain, udalak hartu du hurrengo urteko tasak eta zergak ez igotzeko konpromisoa. Adierazitako proiektuaren bitartez, **gobernu-akordioaren baitan adostutako proiektuak** bultzatuko ditugu, PPren babesarekin.

EAJ-PSE-PPko aurrekontuetan ez dira jaso Getxoko lehentasunak: ez etxebizitza, ez mugikortasun jasagarria, ez zerbitzu publikoetako errefortzua. Proposatzen nahi dugu Sarrikobasoko lurzatiak etxebizitza publikoetarako erostea, Zabala eskolari lagatuko patioa eskuratzea, bidegorri berrietan inbertitzea eta familientzako udal-umezainen zerbitzua eskaintzea. <https://elkarrekingetxo.blogspot.com/>